# BERRIGARA

116. zenbakia | JARDUN ELKARTEA, Bergara | 1993, uztailak 16

ERRENUNTZIEN ONDORENGO ARTZAMENDIKO ETXEBIZITZAK ZOZKETATU ZIREN ATZO

●

1993eko UDAL AURREKONTUAK SAILEZ SAIL

●

KIROLAK

IKER MURUAMENDIARAZ ELGETAKO PELOTA TXAPELKETAKO KADETE TXAPELDUN

●



UDAN BIZIKLETA NAGUSI

IBIL ZAITEZ GOI MAILAN



Martxan jarri auto baten benetako balioak.
Martxan jarri ekipamendurik apartena.
Martxan jarri segurtasun neurri erosoenak.
Martxan jarri Opel Vectra bat. Martxan

300.000 Pezeta*
BITARTEKO DESKONTUA

OPEL

TALLERES OLA

BERGARA
ARRASATEn
kontzesionaria

# ELKAR

**Arruriaga 1, behea BERGARA ☎ 76 58 16**



- **FOTOKOPIAK KOLORETAN**
- **PLASTIFIKAZIOAK**
- **PLANOEN KOPIAK**
- **JENDEARENTZAKO FAXA**
- **ENKUADERNAZIOAK**
  - **Termo-enkolatuak**
  - **Burdinazko espiralak**
  - **Plastikozko espiralak**
  - **Fazikuloak**






**ESKAINTZA PAREGABEA: DIN A-4 PAPERA (500 orri): 495 pzta.**

BERRIGARA

BERRIGARA astekaria
Tfnoa. eta Faxa: 76 03 97 Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara

Argitaratzailea:
Jardun Elkartea. Masterreka, 13 Bergara. ☎ 76 08 19

Babeslea: Bergarako Udala.

Erredakzioa
Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil eta Mikel Elkoroberezibar.

Maketazioa:
E. Azkarate eta E. Mendibil.

Publizitatea eta harpidetzak:
Alex Azkarate eta Edurne Arenaza. ☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua:
Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta Alex Labaien.

Kolaboratzaileak: J. A. Mikeo, Estepan Plazaola, M. A. Elkoroberezibar, J. M. Elexpuru, J. Oregi, A. Urzelai, M. Laskurain, N. Alzelai, A. Lete, J. A. Bengoa, M. Lizarralde, Monika Belastegi, Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña, Asier Madinabeitia, Josune Iñarra eta A. M. Goenaga.

Argazki laborategia:
Pol-Pol Argazki Taldea eta Kiñu.

Komikia eta marrazkiak: Josu Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:
Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)

Banaketa : Txantxangorri Taldea.

Copyright:
BERRIGARA

Tirada: 3.300 ale.

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo sailaren laguntza jaso du

## PROTAGONISTAK

# MARIAREN SIERBAK

Bergarako Mariaren Sierbak gure herrian gelditzearen aurkako firma bilketa jarri da martxan herriko hainbat denda eta tabernetan. Firma bilketa horren arduradunen esanetan, *"kanpainari ekin diogu oraindik ere beharrezkoak ikusten ditugulako, bailara mailan eskertu beharreko lan bikaina egiten bait dute"*.



Firma bilketaren bultzatzaileen esanetan, *"beste zenbait herritan gurean baino erreztasun gehiago dago behar horiei aurre egiteko eta Udalak orain 30 bat urte sierbei konbentu egokiago bat emateko egindako esfortzua gogoratu behar da"*.

Firmak batu ondoren, Bilbora eraman eta, alkatearen laguntzaz, Zuzendari Nagusiarekin elkarrizketatzeko asmoa dute.

**Bergaran gelditzearen aldeko firma bilketa astebukaeran itxiko da**

## ESAN DUTE

"Mendizaleak ez gara barrenderoak eta, horregatik, mendia garbitzeko irteerak egiten ditugunean, naturaren kontserbazioan eta errespetoan gizartea inplikatzeko helburuarekin egiten dira. Diputazioak martxan jarri behar duen "Zaborrero" izeneko kanpainarekin, zabor eta hondakinek paisaia apurtzen dutela erakustarazi nahi diegu gaztetxoei"

**IÑAKI IRIZAR**
Gipuzkoako Mendi Federakuntzako Natura Guneetako arduraduna
EL DIARIO VASCO

•

"Zirkuito bat ez dagoen bitartean, mendiko moto igoerak lagunekin igandetan karrerak egitea baino hobe dira"

**ANGEL BIDELUZE**
Motor gidaria
EUSKADI MOTOR

## ITURRI ONETIK

### Barrenkale trafikora zabaldu

Azken 8 hilabetetan itxita egon ondoren Barrenkale trafikora zabalduko da berriz ere datozen egunotan. Hirigintza Batzordea Bidekurutzetan eta San Pedron gasa sartzeko egin beharreko lanen menpe dago; obrak berehala hasiko balira Barrenkaleko trafikoa kalean behera bideratuko litzateke eta horrela izango ez balitz, printzipioz, ohizko norabidearekin. Bertako komertzianteek azken hilabetetan kaleak bizitasun pixka bat galdu duela adierazi dute.

Atseden zentrua
LOKARTU
Koltxoi-Denda
Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

EZPELETA
etxea
Harizko eta kotoizko goimailako izara eta mantelak
Barrenkale 44 BERGARA

ZUBIETA
elektragintza
✓ Motorren bobinaketa
✓ Era guztietako instalakuntzak
Kruz Gallastegi, 2 behea
Tfnoa: 76 23 48

# Uda Giroan



**Igerilekuetako begiraleak** dituzue argazkian agertzen diren Irune Azpeitia, Elena Azpiazu eta Jose Luis Silva (argazkian Mireia Markiegi falta da). Igerilekuetako sokorristak izateaz gain, bai urtean zehar eta baita uztailean Uda Kanpainaren barruan antolatzen diren igeri ikastaroetako begiraleak dira. Hiru emakumeek IGERi Ondasun Elkartea osatzen dute.



**Uda Kanpainaren** barruan antolatu diren igeri ikastaroetan, Elorriotik etortzen diren 18 bat neska-mutikoez gain, lau talde ezberdinetan banatutako 3-4 urteko 30 bat haur aritzen dira egunero-egunero Agorrosingo barruko pizinetan igerian ikasten. 5 urtetik gorako beste hainbat lagunek ere ikastaroetan parte hartzen du ikastroetan.
Jesus Jauregi monitorea Espainiako Igeri Txapelketetan dagoela eta goian aipatutako Irune, Elena eta Mireia jo eta ke aritzen dira egun guztian zehar aldameneko argazkian ageri diren haurrei igerian erakusten.



Eguraldiak gehiegi lagundu ez arren, ikusgarria gertatu zen joan zen larunbatean jokatutako **Euskadiko IV. Kirol Eskalada Txapelketa**ko 2. eta azken fasea. 32 lagun aritu ziren lehian (28 gizonezko eta 4 emakumezko) eta Labegaraietan jokatutako kanporaketan 13 (9 gizonezko eta 4 emakumezko) sailkatu ziren San Martin Plazako azken frogarako. Honako hau duzue sailkapena: Gizonezkoen taldean, 1. Gotzon Gardezabal, 2. Patxi Arozena eta 3. Carlos Garcia. Emakumezkoetan, berriz, 1. Josune Bereziartu, 2. Leire Agirre eta 3. Ane Hernani.

Iturkintz Berri
Amillaga 1
(B pabiloia)
BERGARA
INSTALAZIOAK:
Iturkintza
Berogintza
Gasa
☎ 76 28 04

ileapaindegia
eder gela
disdira
Masterreka 7 • Tfnoa: 76 00 55

## ANTZUOLAKO JAIAK

**OSTIRALA**

**09.30:** Herriko txistularien kalejira. **10.30:** Gaztelu puzgarriak eta motor txikiak. **11.30:** Meza Nagusia. **12.00:** Eskulanen erakusketa udaletxean. **12.30:** Jubilatuentzat luntxa. **14.30:** Gazte bazkaria Herriko Plazan. **16.30:** kalejira TIRRITARRArekin. **18.30:** Kross herrikoia. **19.00:** Euskal Herriko bertsolari eta jai antolatzaileen arteko partidua. **19.30:** Umeen danborrada. **20.00:** Bola jokua. **22.00:** Tapia-Leturia Band eta Urtz taldeekin dantzaldia.

**LARUNBATA**

**11.30:** Bergarako Musika Bandarekin kalejira. **13.30:** Bergarako Musika Bandaren kontzertua Herriko Plazan. **18.00:** Mairuaren agerraldia. **19.00:** Herriko dantzariak. **20.00:** MIkel Saralegi harrijasotzailearen saioa. **22.00:** Pelota partiduak. **22.30:** EGAN.

**IGANDEA**

**09.00:** txirrindulari proba 1. mailako afizionatuentzat. **10.00:** Paella gertaketa herriko elkarteen eskutik. **12.30:** Keljira: Incansables, trikitilartiak, Herriko dultzaineroak, albokariak... **13.00:** Kotxe gidatuak. **14.00:** Herri bazkaria. **18.00:** Errusiar folklorea, Ukraniako talde baten eskutik. **20.00:** Herriko kirolari oneneni eta Pantxoa eta Peio abeslariei omenaldia. **22.00:** Dantzaldia GAUBELArekin.

## ZER EGIN UDAN?

# Hizkunzta ikastaro trinkoetan buru-belarri

**Hizkuntzak ikastea modan omen dago, gero eta beharrezkoagoak zaizkigu eta. Urtean zehar bezala, uztailean ere ikastaroak antolatzen dira hizkuntz akademia eta Euskategietan. Baina uztailean trinkoak izaten dira.**

Bergaran diren hiru hizkuntz akademietan eta Udal Euskaltegian talde txikiz osatutako ikastaro trinkoak antolatu dituzte aurten ere. Ingelesa da jendeak gehien aukeratzen duen hizkuntza. Hala ere, frantsesak eta euskarak ere badute euren lekua.

La puerta al inglés, Espolon School of English eta UNEDeko akademien artean banatzen dute hizkuntzak erakusterakoan ikasleen pastela.

La puerta al inglés akademian ingeles ikastaroak antolatu dituzte uztailean. Hilabete osoan zehar, goizero bi ordutako klaseak izan dituzte bi taldetan banatutako 10 lagunek. Matrikula 25.000 pzta. kostatu zaio ikasle bakoitzari.

UNEDeko hizkuntz akademiak ingelesa eta frantsesa ikasteko eskaintza egin du. Uztaileko hiru astetan antolatu dira ikastaroak. Ingelesa ikasten 70 bat lagun aritu dira goizero lau orduz. Hamarreko zazpi talde osatu dira. Frantsesa ikasten berriz, 20 bat pertsona ibili dira (bi talde). Matrikularen kularen prezioa: 24.500 pzta.

Espolon School of English akademiako daturik ezin izan dugu lortu.



Uztailean, epe motzean ahalik eta gehien ikasteko ikastaroak antolatzen dira.

Bergaran euskara ikasten aritu direnak Udal Euskaltegian jardun dute. 5 ordu egunero. Hiru talde osatu dira, hiru maila ezberdinei dagokienak: 4. urratsa, Oinarrizko alfabetatzea eta EGA. Guztira 31 ikasle izan dira.

Euskara ikasteko barnetegiak aukeratzen dituztenak ere badira. Euskara Batzordeak banatzen dituen diru laguntzak (400.000 pzta.), izena eman duten 20 lagunen artean banatuko dira aurten.

GURIDI Altzariak

Era guztietako altzariak

Artekale 8, Tfnoa: 76 31 02

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

Pedro Deuna 8, Tfnoa: 76 27 70 BERGARA

# Uda Giroan

## ZINEA



**UN DIA DE FURIA**

**OSTIRALA: 22.30.**
**LARUNBATA: 22.30.**
**IGANDEA: 17.00, 19.30, 22.15.**
**ASTELEHENA: 19.30.**

**Estatu Batuak. 1993. 115'. Zuzendaria: Joel Schumacher. Aktoreak: Michael Douglas, Robert Duvall, Barbara Hershey eta Rachel Ticotin. 18 urtez azpikoentzako ez gomendagarria.**

**Michael Douglas** (*Instinto básico*) aktoreak arrakasta haundia lortu du bere azken filmearekin ere. Berriro ere galtzailearen papera landuz, eguneroko bizitzaz nazkatuta dagoen gizon arrunt baten istorioa kontatzen zaigu. Los Angelesen girotuta, biolentzia izango da filmeko protagonista nagusia.

## ERAKUSKETAK

▼ **Oleo erakusketa:** Rosario Jimenez eta Maritxuren koadroak ikusgai Nahikari tabernan.

▼ **Pintura eta zeramika:** Aita Menni Arrasateko ospital sikiatrikoko gaisoek egindako lanak ikusgai Monterron Kultur Etxean.

## MUSIKA

▼ **Koiuntura** taldeak kontzertua emango du ostiralean gaueko 11etan Pol-Pol tabernan, EGUZKIk antolatutako "Deba Ibaia Bizirik" ihardunaldien amaiera ekitaldian.

## OGIA

▼ **Igandea 18:** Konde.

### GOARDIAKO FARMAZIAK

▼ **Larunbata 17:** Camacho.
☎ 76 11 74. / Amezua.
▼ **Igandea 18:** Camacho.
☎ 76 11 74. / Azkoaga.
▼ **Astelehena 19:** Mozos.
☎ 76 12 15. / Español.
▼ **Asteartea 20:** Estella.
☎ 76 19 63. / Corcuera.
▼ **Asteazkena 21:** Camacho.
☎ 76 11 74. / Amezua.
▼ **Osteguna 22:** Estella.
☎ 76 19 63. / Azkoaga.
▼ **Ostirala 23:** Camacho.
☎ 76 11 74. / Español.

## GOMENDIOA

Eguraldi ona egiten baldin badu, mendira eta hondartzara joateko aprobetxatuko dut astebukaera hau. Larunbatean, Aitzgorrira irteera egingo dut egun guztirako. Urbia inguruko zelai ederrekin gozatu eta gero, gauean seguruen lagunekin Antzuolara joango naiz jaietara eta hurrengo egunean, bazkalostean hondartzara, lasai-lasai eguzkia hartzera. Eguraldiak laguntzen ez badu, ostera, kalean geratuko naiz lagunekin, tabernarik-taberna... Kotxea ez daukagunez ez gara inguruko herrietara sarritan irtetzen, baina Antzuolako jaiak izanda, ba....

**Amaia UNAMUNO, 22 urte**



**Eguraldiak laguntzen badu mendira eta hondartzara.**


REMENTERIA
**Altzariak**
Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguak
Artekale 6, Tfnoa: 76 13 29

ZAPELAITZ
Taberna
Eguneko menuak astelehenetik ostiralera
San Lorentzo 25, BERGARA

SUBIJAI
Gazteentzako moda
Irizar, 1 ☎ 76 42 41

# Santa Marinako jaiak

*Uda Giroan*

## OSTIRALA 16

**10.00:** **Ibilaldi neurtua** aiton-amonentzat.

**17.00:** San Martzialera **txirrindulari igoera**. Ondoren, Txokolatada **KATABIXA** taldeak alaituta, eta 20.00etan jeitsiera.

**22.15:** **Zinea aire librean** Irala eskoletan.

**22.30:** Musika Eskolako **Orkesta Sinfonikoak** emandako kontzertua Santa Marinako eleizan.

**23.30:** TXINPARTA taldearekin **dantzaldia** Matxiategin.

## LARUNBATA 17

**10.00:** **Plater jaurtiketa** Gorlako Iru-Bide inguruan.

**11.00:** Haurrentzat **tortila lehiaketa.**

**12.00:** **II. Boccia** txapelketa.

**18.00:** **Bolo** txapelketa.

**19.00:** **Buruhaundiak** KATABIXA taldeak alaituta.

**20.00:** **Water-poloa**: Bergara-Hernani. Igerilekuetan.

**20.30:** Umeen **danborrada.**

**23.00:** ALMAZARA taldearekin kanp **dantzaldia.**

## IGANDEA 18

**09.00:** Diana **Udal Txistulari**en eskutik.

**10.30:** **Udal Musika Banda**ren kalejira.

**12.00:** **Herri Meza** Santa Marinako eleizan Udalbatza bertan dela.

**13.00:** **Aritzeta** abesbatzaren kontzertua.

**13.15:** **Udal Musika Banda**ren kontzertua Fraiskozurin. Ondoren salda eta txorizoa banatuko dira.

**13.45:** **Xamatz** taldearen dantzaldia.

**18.00:** **Txirrindulari ibilaldi** herrikoia.

**18.30:** **Txokolatada** Usondon.

**19.00:** Haurrentzako **zaldi txikiak** Santa Marinan.



*Haurren danborrada larunbatean arratsaldeko 8.30etan.*

## EGURALDIA

**Joxe BADIOLA "ITXUMENDI"**



### Goibel xamarra

Ea oraingoan hutsik eitten ez doten.

Egun polittak izan dittugu azken hauek, julixoko bero haundienak bizi izan dittugu eguazten eta eguenean eta.

Hala ere, astebukaeran zertxobait okertu egingo da eguraldixa, lainoak ugaltzen joango dira eta lanbrua ere egingo dau egunen batean.

Kontuak-kontu eguraldia ez da oso-oso txarra izango eta astelehenean, ilargi betea, gehiago okertuko da: trumoiak ere izango dira.

Horrela egun pare bat eman ondoren, berriz ere hobera egingo dau.

Eta hilaren 22a, Santa Madalena eguna, egun zoragarria izango da. Eta gaztain uzta onaren ama denez, a ze puzkar piloa botako dittugun aurtengo udazkenian!!.


**EGUREN GESTORIA**

*Maria Pilar Eguren Diez*

Kolegiatutako administrazio gestorea

Simon Arrieta enparantza 3, behea.

☎ 76 21 65 / 76 24 45

*Carmen Garate*

**Plastikoak orokorrean, oinetakoak, opari gaiak, jostailuak, zumea...**

**Bidekurutzeta ☎ 76 13 23**

## *Giza lorpena?*

Zezenenganako Errespeturako Batzordetik Pazkuetako zezenketan gertatutakoa orain artekoen desberdina den ikuspuntu batetik aztertu nahi dugu.

Guretzat, Zezenenganako Errespeturako Batzordea, animalienganako tratu txarra eta heriotza oinarritzat duen "festa" bat ez da inoiz lorpena izango. Alderantziz, edozein modutan jantzita ere, tortura ez da bidezkoa, ezta inoiz gizartearen lorpen bat ere. Zezenketari laguntza, prentsa eta musika jarri zaio, baita kultura ere, sarrerak Kultur Etxean salduz. Autoridadeek korbatak jantzi dituzte, banderillei kolorea eman zaie eta ezpatari odola. Benetan gertatu dena zera da: oinarririk gabeko ikuskizun krudel bat, hiritartasun faltaren festa penagarria. Jende ugari joan zen zezenketara, dudarik ez, eta gainera oso ondo pasako zuten gehienek. Baina ez dezagun kopuruekin jokatu, seguraski nahita joan ez zirenak gehiago izango ziren eta.

Honekin jarraituz, Bergarako Udaleko "kultura" batzordeari eta Abajo jaunari bereziki hauxe esan nahi diogu: honelako ekintza bat jendea joan izanagatik giza lorpen bat dela pentsatzea ez da objetiboa, astakeria baizik. Benetan horrela uste badu, jaietan jende ugari alkoholez eta beste drogaz gainezka jartzen dela gogoratuko diogu, eta seguraski hori gizartearen arrakasta bezala ez duela baloratuko, ez eta kulturaren izenean bultzatuko ere.

Benetan ezinezkoa da gauza asko logikarekin lotzea. Aurten onartu eta bultzatu dutenarekin, zaila jarri diote Udaletxe berean gizarte-ongitasunaren alde, hezkuntzaren alde edo ingurugiroaren alde lanean dauden beste batzuri. Udaletxeak indarkeririk gabeko herria nahi duela dio askotan, herri garbiago bat, txukunagoa, ingurugiroarekiko errespetua duena eta elkarbizitzan harmoniotsua. Tamalez, esan bai baina adibide egoki bat ematea falta izan zaio oraingoan: lagun talde eraginkor baten grina eta presioek eskeinitako formula errazak onartzea eta errespetuaren kultura eskatzen dutenei kasorik ez egitea ez dator esandako horrekin bat.

Bukatzeko, Zaharren Egoitzan bazkari musikala eskaintzea benetan ideia bikaina iruditzen zaigu. Baina honelakoak egiteko ez da beharrezkoa zezenak torturatu eta hiltzen dituen zezenketarik. Bazkari hori, berriz ere, zezenketaren montajea justifikatzeko erabili da soilik, pasatako garai ilun baten egiten zen bezala (eta orduan bezala, zinegotzi batzuk argazkira hurbiltzeko aukera ez dute galdu). Musika eta festa denok dugu oso gustoko, baina hortik zezenketaren baldintza biolentoa onartzera tarte handia dago. Zezenketara joan nahi izan ez zutenekin bat egiten dugu beraien jokaera zibikoagatik, eta Udala eta bere ordezkariak hurrengo urtean taurinoen konparsa izan beharrean errespetua eta kulturaren benetako adibide izatera gonbidatzen ditugu. Antolatu beldurrik gabe zahar eta gazteentzako bazkari musikalak, farra eta jai giroa. Ziur arrakasta izango duzuela.

***Zezenenganako Errespeturako Batzordea***

## *EKIri erantzuna*

Joan zen asteko martitzenean, EKIko kide bat BERRIGARAko erredakziora hurbildu zen San Martzialen ateratako argazki bat eta testutxo bat astekarian argitaratzeko eskatuz. BERRIGARAko Erredakzio Kontzeiluak, edozeiniritzi eman nahi izanez gero Gutunak sailean argitara zezakeela erantzun zion. Horren ondoren argitaratu zen joan den asteko BERRIGARAn EKIk izenpetutako "Adierazpen askatasuna" izeneko karta.

BERRIGARA astekariak zera argitu nahi dio Bergarako EKIri eta Bergarako herriari: edozein iritzi argitaratzeko saila gutunena da eta bertan, beste aldizkari, egunkari, e.a.tan gertatzen den modura, ez dago argazkirik jartzerik, EKIk pasa den astean nahi zuen bezala. Beraz, Gutunak sailean zerbait argitaratu nahi duenak hitzez eman behar ditu bere azalpenak. Muga horren barruan inori ez zaio ukatzen bere eritzia emateko eskubidea.

***BERRIGARAko Erredakzio Kontseilua***

## Tiiira ba!

Josu Okina



## Arantzazura peregrinazioa

Datorren igandean, uztailak 25, Arantzazura peregrinazioa egingo da. Irteera goizeko 9etan izango da Frontoitik (Belenguan, Ozaetan ere parada egongo da), 10etan penitentzia, 11etan Meza Nagusia, ordubatetan bazkaria, 4retan Ama Birjinari agurra eta 5etan itzulera. Txartelak (autobusa 700 eta bazkaria 1.500 pta.) Agirrebeña, Zatoia, Aranzabal edota Garitano dendatan eskura daitezke.

## Idolazen kamisetak

Antzuolako Idolaz euskara taldeak kamisetak salgai jarriko ditu Antzuolako jaietan, dirua batu eta herritarren artean bere presentzia indartu asmoz.

# Errenuntziatutako Artzamendiko etxebizitzak zozketatu ziren atzo



AZSE enpresak Toki-Ederren eraikiko ditu etxebizitza itunduak.

Joan den otsailaren 25ean Artzamendiko etxebizitza itunduen adjudikazioa egin ondoren, ordutik errenuntziatutako etxebizitzen notario aurreko zozketa publikoa egin zen atzo arratsaldean Kultur Etxean. Guztira, 18 errenuntzia izan ziren eta Victoriano Gallastegi alkatea, Xabier Gallastegi Hirigintza Batzorde burua, Juan Ignacio Galdos abokatua eta Maria Agirre notariaren presentziaz, etxebizitzen zozketa burutu zen.

Etxebizitza sozialei dagokienez, honako hauek ditugu adjudikatario berriak: Manuel Rodriguez Sanchez (3 logela), Maria Angeles Hernandez Conde (3 logela), Diego Osuna Hurtado (4), Benito Davila Muñoz (4) eta Marian Zubizarreta Bolinaga (2). Errenuntziaren bat balego, hauek eskuratuko lituzkete etxebizitza horiek ondorengo ordenean (lehen hirurak): Josu Mirena Azula Txurruka, Dulce Maria Rodriguez Viñas eta Jose Antonio Martin Barcala.

Jarraian babes ofizialeko zozketa izan zen eta honako hauei tokatu zitzaien: Maria Esther Torre Herrera (3 logela), Francisco Javier Garcia Sousa (2 logela), Jon Ander Unamuno Larrañaga (3), Xabier Eguren Laskurain (3), Rafael Etxaniz Lizaur (3), Xabier Azkarate Iñarra (3), Alberto Herran Alarcia (3), Fernando Muruamendiaraz Iñarra (2), Jose Heis Mengual (4), Felipe Baladron Morais (3) eta Luis Maria Eguren Zornozari (3). Errenuntziarik izatekotan lehen hirurak hauek lirateke: Alfredo Manso Valdes, Isaak Lazkano Larrañaga eta Eusebio Marchan Sierra. Azkenik, gutxituei zuzendutako bi etxebizitzak Javier Badiola Quintanilla (2 logela) eta Carmen Dios Jimenezen (2) esku geratuko dira.

AGENTZIA:
J. ELKORO
Ibargarai 2, behea
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA
ZURICH
VITA UNIBER
CAUDAL HISPANA
ZURICH TALDEA ASEGURUAK

Siaska
Dena zure haurrarentzako
Pedro Deuna 10, Tfnoa: 76 10 39

MARKIEGI Automobilak
Automobil eta kamioien karrozeria eta mekanika

Leizeaga, 1 (San Lorentzo pol / ind)
☎ 76 35 09 BERGARA

JOSE LUIS eta MIKEL
URTEAGA, 6
Besaulki eta tresiloen konponketa eta tapizaketa. Etxebarruen dekorazioa
☎ 76 07 23 / 76 50 37 / 79 35 17

## Txirrinka, bizikleta ibilaldia

Eguzkik antolatuta, uztailaren 18tik 24ra bitartean Txirrinka bizikleta ibilaldia egingo da Baionatik Santurtziraino. Gizartearen kontzientziazio ekolojikoa piztu eta itsasertzeko egoeraren hobetzea aldarrikatzeko asmoz, hainbat etapa izango dira. Ostegunean, hilak 21, Deba-Ondarru etapan parte hartu ahal izango dugu.

## Kartel lehiaketa

HIES Ekimenak abenduaren 1etik 23ra bitartean Arrasaten burutuko den "Adibidez" izeneko mostra iragartzeko kartel lehiaketa konbokatu du. Lanak irailaren 26a baino lehen aurkeztu beharko dira eta informazio gehiago 792699 telefonoan jaso dezakezue.

## Zozketa

Xaputz eta Ikasle Abertzaleak-ek eginiko zozketan 35 zenbakia izan da saritua. Boletoaren jabeak Bolintxo Kiroldendan 30.000 pta. gastatzeko bonoa jasoko du. Antolatzaileek uztailaren 1ean egin beharreko zozketa 11ra atzeratzeagatik barmenak eskatu nahi dituzte.



Orkesta Sinfonikoa "La misión" eskeintzeko Huelvara gonbidatua.

# Orkestaren kontzertua gaur

### *Huelvara egingo duten bidaiarako dirua jaso nahi da*

Bergarako Orkesta Sinfonikoak kontzertua eskeiniko du gaur ostirala, gaueko 10.30etan Santa Marinan, irailean Huelvara egingo duten bidaia ordaintzeko dirua jaso asmoz. Huelvako Diputazioak gonbidapen bat egin dio Alfredo Glez. Chirlaquek zuzentzen duen orkestari irailaren 19tik 26ra bitartean Isla Cristinan izango den Abesbatzen Nazioarteko Astean parte hartu eta beste 3 kontzertu emateaz gain, Isla Cristinako abesbatzaren laguntzaz "La misión" eskeiniko dute (Isla Cristinan bertan, Punta Umbrían, Zalamea del Real eta beste herri batean).

60 lagun abiatuko dira Huelvara eta hango gastuak Huelvako Diputazioaren kontura joango badira ere, Orkestak bidaia ordaintzen laguntzeko sos batzuk batu nahi ditu gaur. Sarrerak 300 pta.tan jarriko dira salgai eta programa honako hau izango da: *Alceste* (Goluck), *Fuegos artificiales* (Haendel), *Ene barne barnetatik* (Alfredo Glez. Chirlaque, estreinua), *Final* (5. sinfonia, Schostakovich) eta *Carmen* (Bizet).


Iletxo
Ileapaindegi mistoa
BEGOÑA ARZELUS
Fleming Doktorea, 7 ☎ 76 53 15
20570 BERGARA

Amets
Ford
• HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak.
• Zango erremolkeak.
• Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak.
Informazioa: ☎ 78 25 92 / 78 19 50
AMETS TAILERRAK
Berezano auzoa OÑATI

Kiroldegiko Taberna
Labegaraieta Tfnoa: 76 56 41

edertu
20 urte zure zerbitzura, kalitatezko altzariak eskaintzen
Barrenkale, 23 ☎ 76 29 65 BERGARA



Jokin Inza, Victoriano Gallastegi, Imanol Bolinaga eta Xabier Arzalluzen artean.

# Jokin Inza jeltzalea omendua

## *Bergarako EAJ-PNVk omenaldia eskaini zion igandean*

Jokin Inza bergarar jeltzaleak omenaldia jaso zuen joan zen igandean Bergarako EAJ-PNVren eskutik.

Don Serafin Esnaolak Monja Zaharretan emandako mezaren ondoren, dantza saioa eskaini zioten Moises Azpiazu dantza taldeko hiru bikotek Batzoki aurrean eta ondoren, hitzalditxo bat burutu zen Batzokiko hitzaldi aretoan. Xabier Arzalluz EBBeko presidenteak, Joseba Egibar eta Luis Mari Retolazak Jokin Inzak gerra ostean erbestean euskararen eta alderdiaren alde egindako lanak goraipatu zituzten. Xabier Arzalluzek Jokin Inza bezalako gizonek, belaunaldi berrientzako ispilu izan behar dutela adierazi zuen.

Jokin Inzak ere hitz batzuk esan zituen. Omenaldia egin izanagatik alderdiari eskerrak eman ondoren, gerra ostean hil zen Agustin Unzurrunzaga "Xabale" zenari ere omenaldia eskaini beharko litzaiokeela adierazi zuen.

Hizketaldi ostean, bazkaria izan zuten bildutako 100 bat alderdikidek.

## Basalgoko jaiak hurrengo astean

Basalgo auzoko jaiak ospatuko dira uztailaren 23tik 31era bitartean: ostiralean, hilak 23, jaien hasiera arratsaldeko 7etan, makal jasotzea 8etan eta afari herrikoia 9 t'erdietan; larunbatean, plater tiraketa 15.30etan, umeentzako jolasak 17.00etan eta Manu Iztuetaren erromeria 10etatik aurrera; igandean, Santiago egunean, Meza Nagusia 11etan, XII. Basalgo Txirrindulari igoera 12etan, pelota partiduak 12.30etan, txinga eruatea eta bertsolariak ondoren, mendi bizikleta trabesia 4retan, III. Dantza Txapelketa 6etan eta jarraian bertsolarien saioa eta erromeria; astelehenean Meza Santua 12.30etan; eta larunbatean, hilak 17, Meza nagusia ordubatean eta bazkari herrikoia 14.30etan, egun guztia Manu Iztueta soinujoleak alaituta.

## Donostiara irteera

Jubilatuek Donostiara eskurtsioa iragarri dute hilaren 27rako. Prezioa 2.100 pzta., plaza mugatuak dira (55) eta izena emateko azken eguna 22a.

IBARGUREN PENTSUAK
Biona pentsuen biltegia.
Bioter produktoak eta haziak.
San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

Garnish
Bitxitegia
% 25ko deskontuak
San Pedro 12, Tfnoa: 76 03 57

MINER ardoak
Ardo onak, jakina
Biltegiko telefonoa: 76 41 41

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 56 62

# TOKI-EDER

## Txabolatxo berriztatua



Toki-Eder elkartea.

Lagun talde batek hilean behin afari bat egiten zuen Ollagorra elkartean. Afari hauetatik irten zen Gorlan elkarte bat sortzeko asmoa.

Gorlan Akiñabeko txabola zegoen aspalditik. Toki-Ederreko bazkideak baino lehen beste batzuk ere ibiliak ziren txabola hura erosi nahian, baina jabeak ez zuen saldu nahi. Toki-Ederreko bazkideak joan zirenean, jabeak baldintza bat ipini zuen txabola saltzearen trukean: bera ere bazkide izatea.

Horrela, 1.300 metro karratuko jabetza erosi zuten 55.000 pztagatik. Gaur egun zerbait handiagoa da Toki-Eder, beranduago bazkide bati beste 500 metro karratu erosi bait zioten.

Bertako bazkide den Javier Izarbek esan digun bezala, 1969.ean ireki zituen bere ateak Toki-Eder elkarteak 17 bazkiderekin.

Gaur egun bazkide kopuru berdinak jarraitzen du elkartean. 17 lagun hauen artean gehienek 60-70 urte bitartean dute.

Bazkide bakoitzaren seme batek ere elkarteko giltza du. Beraz, 17 bazkide hauetaz gain, beste 17 k dute elkartera joateko aukera. Neurri hau elkarteari mugimendu handiagoa emateko, elkartea gehiago aprobetxatzeko, hartu zen.

Toki-Eder elkartean urtean 400.000 pzta inguruko kaja batzen dute. Elkarte honetan faltekin oso ondo dabiltza, ez bait da egoten. Kuotarik ere ez dute ordaintzen bazkideek. Konponketaren bat edo egin behar bada dirua jartzen dute, eta kitto.

Momentu hauetan ez dute proiekturik, orain dela gutxi egin bait dituzte konponketa batzuk: pintatu, ontzi berriak...

Toki-Eder elkartean ez dago beste elkartetan bezala ez presidente ez eta juntarik ere. Bi administratzailek eramaten dute eraman beharrekoa. Binan-binan aldatzen dira. Orain Javier Izarbe bera eta Eustaquio Larrañaga dira administratzaileak.

Sukaldeko trebetasuna dutenak ere badira Toki-Eder elkartean. Esteban Ibabe eta Nikolas Romaratezabala «Marin» aipatu dizkigu, txuletilak eta bildotsa gertatzen.

***Ainhoa Lete***

### FITXA TEKNIKOA

**SORTU:** 1969.
**BAZKIDEAK:** 17.
**HELBIDEA:** Gorla.
**PRESIDENTEAK:**
Javier Izarbe eta Eustakio Larrañaga.
**ELKARTEAREN EGUNA:** Martxoan.
**URTEKO KUOTA:** Ez dago.




**POL - POL TABERNA**
Tfnoa: 76 07 78

**DEPORTIVO TABERNA**
Tfnoa: 76 01 51

**EDEL**
**tapizdenda**
Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu:
*Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.*
Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.
**Bidekurutzeta 14, BERGARA**

# Victor Jose Acosta Etxaniz, sustrai euskaldunak dituen venezuelarra

**Victor Acostak 43 urte ditu, eta Caracasen (Venezuelan) jaioa da. Bere ama Soraluzekoa da eta aita Tenerifekoa, Victorrek dioen moduan "nire ama pelotaria zen eta Tenerifera jokatzera joan, eta han nire aita ezagutu ondoren, 1949an ezkondu eta Venezuelara emigratu zuten eta orain, hemen nago ni".**



Victor Jose Acostaren esanetan euskaldunak oso errespetatuak dira Venezuelan. Goi mailako postuetan kokatuta omen daude.

## "Venezuelan, batzuk gosez hiltzen diren bitartean, beste batzuk kabiarra jaten dute"

**- Zu Venezuelan jaioa zara, baina izan al duzu harremanik Euskal Herriarekin?**

- Nire amak asko hitz egiten zigun Euskalerriari buruz, horretaz aparte ni 1956an hemen 6 hilabetez bizi izan nintzen eta euskaraz hitz egitea lortu nuen, baina orain guztiz ahaztuta daukat. Nire anaia gazteena Soraluzen jaioa da eta nire arreba, Mirari, Caracasen jaioa den arren badu Euskalerriarekin harremanik. Ni 1971tik aurrera, Alitalian lanean hasi nintzenetik, urtero etorri izan naiz Bergarara.

**- Ze egoeratan dago Venezuela?**

- Egoera nahiko gaizki dago, 1989an Venezuelan ekonomiaren "berregokitze" bat egin zuten; gure herriaren ekonomiaren ardatza petrolioa da eta honek ematen dizkigu diru sarrera gehienak. 1989 arte diru asko mugitzen zen, baina korrupzioak ere gora egin zuen eta kanpo zorra asko gehitu zen. Urte horretan gauzak asko aldatu ziren, ordura arte gu ondo bizitzen ohituta geunden, baina Carlos Andres Perezen gobernuak egindako murrizpenek ez dute emaitza onik eman eta azkenean Perezek korrupzio arazoak zirela eta, gobernutik alde egin beharra izan du.

**- Orain arte egoera ekonomikoari buruz hitz egin duzu, baina sozialki ze egoera bizi duzue?**

- Lana badago, baina kualifikazioa duen jendearentzat bakarrik, bestalde Venezuelan jendea kontzentraturik dago hiri handietan eta banaketa izugarria dago oso aberatsen eta oso pobreen artean. Badago jendea izugarrizko diru pila irabazten duena, klase sozial ertaina ere badago eta azkenik, jende asko miseria gorrian bizi dena. Horrek delikuentziaren gehitzea ere ekarri du, arazo hori serioa da, hiri handietako jendea "salbuespen egoera"n bizi baita.

**- Venezuelako euskaldunen artean ba al duzue harremanik?**

- Venezuelan dagoen euskal kolonia gerra ostean bertara joandakoen semeek osatzen dute. Han jende euskaldunak sekulako eragina du, eta administraziko eta enpresa pribatuetako postu garrantzitsuenetan daude, nire anaia esate baterako kreditu txarteletan aritzen den enpresa bateko gerentea da, nire arreba arkitektoa da. Denek dute izen euskalduna, Mikel, Iker eta horrelakoak eta nahiz eta Venezuelan guztiz integratuta egon beti dute ikutu bat euskaldunak direla esaten duena eta han euskaldunak, ohituraz, errespetatuak dira.

**- Euskal etxerik badago Caracasen?**

- Bai, han etxeak eraikitzen euskaldunak hasi ziren eta baserri itxura dute eta izenak euskal kutsua gordetzen dute Iruñea, Gasteiz... horrelako izenak dira nagusi. Euskal Etxea baserri bat da, bere frontoia du eta bertan euskaldun jatorriko jendea biltzen da, afaltzeko edo denbora pasatzeko.

**- Bergarara 1971tik aurrera etorri izan zara eta ordutik hona aldaketarik nabaritu duzu?**

- Egoera ordutik hona hobetu egin da, politika eta sozial aldetik helduagoa dago, ekonomia aldetik igarri dut, beherakada bat eman dela, baina ez da Venezuelan moduan han krisi ekonomikoa dagoenean jendea gosez hiltzen da eta, beste batzuk, kabiarra jaten dute.



# Bizikletak udarako dira

**Indurain, Rominger, Bugno... izen ezagunak dira eta modu askoz apalagoan bada ere, gure herrian Bergarako Txirrindulari Taldeak bizikletazale anonimo ugari batzen ditu.**

**Martxoaren lehen igandean Dorletako amabirjina bisitatu eta gero, urrirainoko igande goiz guztietan, eguzkia edo euria egin arren, hor izango ditugu adin ezberdinetako "Indurain" ezezagunek Euskal Herri osoko errepideetan zehar beraien bizikleta gogoak asetu nahian.**

Bergarako Txirrindulari Elkarteak plazan du bere egoitza eta bertako hormetan zintzilikatuta dauden argazkiek gure herriko txirrindularitzaren historia isladatzen dute. Han aurkitu dugu Benigno Menor "Txiki" elkarteko presidentea eta berarekin zikloturismoari buruz hitz egin dugu. Berak emandako datuen arabera gure herrian 85 zikloturista daude federatuta *"federatzea oso erraza da, aurten lizentziak 4 mila pzta balio ditu eta istripuak izaten ditugunean guk izandako kalteak eta besteei egindako kalteak estaltzen ditu, baina ez bizikletak izandako kalteak, jendeak tranpak egiten zituen eta".*

Kirola egiteko edozein adin da ona eta txirrinduan ibiltzeko adinak ez du zerikusirik *"gure elkartean 16 urtetik 63 urtera bitarteko txirrindulariak ditugu. Paco Gimbert, 63 urtekin eta Gurutz Arrieta 61 urtekin dira taldeko beteranoenak, orainarte Donato Igarza izanda nagusiena, baina duela gutxi erretiratu da. Gazteena berriz, 16 urtekoa Lamikizen semea da"* adierazi digu "Txiki"k.

Zikloturisten urteroko lehen irteera martxoaren lehen igandean izaten da, eta Bergaratik-Dorletara dauden 25 km.ak, Xacobeoa bailitzan, zikloturisten prozesio bihurtzen dira. Dorletan, bertako amabirginari loreak eskaintzen dizkiote eta urrira arte egingo dituzten irteeretan Dorletako amaren babesa izango dute.

Martxoko lehen igandea heldu arte zikloturistek jarrera ezberdina izaten dute: *"neguan batzuk ibiltzen gara bizikletan, beste batzuk beste kirol batzutan aritzen dira eta askok ez dute ezer egiten".*

Elkartean 85 zikloturista daude eta errepidera irtetzeko orduan ez dira denak batera irtetzen: *"gehien irtetzen garen eguna lehena eta azkena izaten dira. Normalean 20-30 irtetzen gara eta errepidean gero eta arazo gutxiago ditugu kotxegidariek gehiago errespetatzen gaituzte eta".*

Beti esan ohi da, bizikletan errepidetik ibiltzen garenean banan banan eta ahalik eta gertuen ibili behar dela, baina "Txiki"k beste teoria bat dauka: *"taldean joaten garenean kotxe gidariak hobeto ikusten gaitu eta gainera aurreratzerakoan kontu gehiagorekin egiten du, Bestalde errepidean 30 tipo ilaran joaten bagara gidarien maniobrak zaildu egiten dira".*

### Bizikletan ibiltzeko

Telebistan txirrindulariak ikusten ditugunean badirudi beste mundu batekoak direla, beren

egitura fisikoagatik eta indarragatik batez ere; hori gezurtatuz, "Txiki"rentzat zikloturista izateko ez dago Induraineen modukoa izan beharrik: *"bizikletan ibiltzeko zaletasuna izan behar da eta horretaz aparte toki eta inguru berriak ezagutzeko grina ere beharrezkoa da. Dena den, lizentzia ateratzerako orduan medikuarengana joaten gara gure egoera fisikoa zein den jakiteko".*

Zikloturistak afizioz ibiltzen dira eta horrek ez du esan nahi beren artean "pikerik" ez dagoenik: *"bai beti daude batzuk indar gehiago dutenak eta orduan badakizu, batzutan berotu egiten gara mendi bat igotzerakoan edo..., baina intentzio txar barik eta laguna gaizki ikusten badugu laguntza osoa eskainiko diogu".*

Martxotik urrira ia igande goizero irtetzen dira bizikletan ibiltzera eta denbora luze horretan izan dute anekdotarik ere: *"gogoratzen dut Iparraldean zikloturistentzat korritzen ari nintzela eta 30 zikloturista inguru gindoazenean triatleta batek abiada bizian aurreratu gintuen eta gu bere atzetik zoroen pare irten ginen baina gu goizeko 5etan gosalduta geunden eta proba 10etan hasi zen. Abiatu ginen, bai, triatletaren atzetik eta ziztu bizian nindoanean lautadan indar barik gelditu nintzen, lautada izan beharrean bazirudien Tourmaleta igotzen nengoela, ez nuen ezer ikusten... a ze "pajara" harrapatu nuen!"* esan digu "Txiki"k.

## Udan bizikleta zaleak gehitu

Espainiako itzulia, Giroa eta Tourra hasten direnean egunero ditugu telebistan txirrindularien "hazañak" eta horren eraginez, batez ere, asko gehitzen da udan zikloturisten kopurua: *"hori jarduera guztietan gertatzen da eta bizikletan hiru proba handiak daudenean jende gehiago ikusten dugu errepideetan, horrek arriskua ere gehitzen duelarik, zeren bizikletan dabilenak jakin behar du ibilgailu batean doala eta edozein momentutan gerta daitekeela istripua eta horrexegatik beharrezkoa da lizentzia izatea".*

Zikloturista izateko beharrezkoa den tresna bakarra bizikleta da. Herriko zikloturisten taldean mota guztietako bizikletak daude *"batzuk 300 mila pzta.ko bizikletak dituzte eta ostera, beste batzuk 60 mila pzta.koak. Normalean hasten zarenean uste duzu zure bizikleta dela onena, baina besteenak ikusterakoan zure bizikletak "triziklo" bat dirudi".*

Txirrindulari taldekoak zaletasunagatik ibiltzen badira ere, horrek ez du esan nahi ez dutenik trofeo berezirik. "Txiki"k dioen bezala: *"igande goizean irten baino lehen bakoitzak zenbaki batekin fitxa bat hartzen du eta urte amaieran 20 irteera baino gehiago egiten dituenak opari bat jasotzen du".*

## Toki bikainak ezagutzeko aukera

Frogatuta dago bizikletan ibiltzea osasunarentzat ona dela eta horretaz aparte inguruko herri eta paisaiak ezagutzeko aukera ematen du: *"nik, duela 6 urte bizikletan ibiltzen hasi nintzenetik, Gipuzkoako herri ugari ezagutzeko aukera izan dut; eta nere ustez, Gipuzkoan ezagutu ditudan igotzeko mendirik zailenak Azurki eta Zestoatik-Endoiara dagoen mendia izan dira"* adierazi digu "Txiki"k.

Gipuzkoaz gain beste toki batzuetara ere joaten dira bizikletan ibiltzera *"pasa den urtean Lagos de Covadongan, Hiru Handietan (Urkiola, Orduña, La Herrera), Sabiñanigon, Lizard-Bahamontes (Frantzian), Burgosen izan ginen".*



Iaz egindako urteroko irteeran, Elizondon izan genituen Bergarako zikloturistak.

Pepelu
Ileapaindegia
Zurradero 2, Behea.
Tfnoa: 76 43 07

ONENA
TINDATEGIA
Barrenkale 29, BERGARA

HEMEN
edertze aretoa
Matxiategi, 36 behea ☎ 76 58 88

# 1993ko Udal aurrekontuak

## UDAL AURREKONTUA

| | |
|---|---|
| Udala | 1.884.961.250. |
| Udal Euskaltegia | 59.110.762. |
| Mizpirualde Egoitza | 177.614.952. |
| **AURREKONTU OROKORRA** | **2.121.686.964.** |

## SARREREN AURREKONTUA

| | |
|---|---|
| Zerga zuzenak | 261.940.000. |
| Zeharkako zergak | 36.000.000. |
| Tasak eta beste sarrerak | 259.000.000. |
| Transferentziak | 713.000.000. |
| Ondasun sarrerak | 13.900.000. |
| Inbertsioen salmenta | 70.100.000. |
| Kapital transferentziak | 191.750.000. |
| Finantz aktiboen aldakuntza | 5.600.000. |
| Finantz pasiboen aldakuntza | 332.091.250. |
| **SARRERAK GUZTIRA** | **1.884.961.250.** |

## GASTUEN AURREKONTUA

| | |
|---|---|
| Langileen gastuak | 535.970.000. |
| Ondasunen erosketa eta zerbitzuak | 329.325.000. |
| Interesak | 153.270.000. |
| Transferentzia arruntak | 206.622.000. |
| Inbertsioak | 569.512.713. |
| Kapital transferentziak | 25.011.535. |
| Finantz aktiboen aldakuntza | 5.600.000. |
| Finantz pasiboen aldakuntza | 59.650.000. |
| **GASTUAK GUZTIRA** | **1.884.961.250.** |

# 1993ko Udal aurrekontuak

## GASTU OROKORRAK.
**55.930.000. % 2,9.**

| | |
|---|---|
| Zinegotzien gastuak | 31.370.000. |
| Barrenkaleko Udaletxearen alokairua | 7.150.000. |
| EUDEL | 500.000. |
| Udaleko langileen soldaten igoera aurrik. | 15.000.000. |
| Beste gastu orokor batzuk | 1.910.000. |

## ZERBITZU OROKORRAK.
**426.216.209. % 22,6.**

| | |
|---|---|
| Funtzionari eta langileen sold. eta aseg. | 233.180.000. |
| Eraikuntzen alokairua eta mantenua | 5.010.000. |
| Azpiegituren konponketak eta mantenua | 7.255.000. |
| Tresneria eta instalakuntzen konponketak | 2.095.000. |
| Ibilgailuen konponketak | 1.780.000. |
| Bulegoko eta zerbitzuetako gastuak | 56.220.000. |
| Argindar publikoa | 33.210.000. |
| Aseguro eta tributoak | 1.265.000. |
| Mankomunitatea. Zaborrak | 37.510.000. |
| Mankomunitatea. Hiltegia | 1.720.000. |
| Mankomunitatea. Zerbitzu orokorrak | 12.150.000. |
| Finantz aktiboen aldakuntza | 5.300.000. |
| Udal biltegi berriaren ekipamendua | 2.900.000. |
| Hiriko argikuntza berria | 10.000.000. |
| Bulegoetako ekipamendu berria | 780.000. |
| Tresneria eta ekipamendu berria | 8.598.000. |
| Dirulaguntza. San Pedro | 300.000. |
| Udal azoka berriaren ekipamendua | 863.209. |



## GIZARTE ONGIZATEA.
**148.796.463. % 7,9.**

| | |
|---|---|
| Funtzionari eta langileen sold. eta aseg. | 36.310.000. |
| Eraikuntzen alokairuak eta mantenua | 2.855.000. |
| Bulegoko gastuak | 17.220.000. |
| Ekintzak | 16.317.000. |
| Mankom. Formazio okup., eskola tailerra | 10.810.000. |
| Mankom. elbarrituen garraioa. | 1.420.000. |
| Mizpirualde egoitza | 15.177.928. |
| Drogomenpekotasun laguntzak | 2.650.000. |
| Etxeetara asistentzia | 14.550.000. |
| Urbanoari laguntza | 1.690.000. |
| Denbora libreko taldea | 65.000. |
| Odol emaileak | 125.000. |
| Behar-zana | 55.000. |
| Jubilatuen egoitza | 645.000. |
| Beste laguntza batzuk | 1.630.000. |
| UCE | 1.160.000. |
| DYA | 125.000. |
| Gurutze Gorria | 125.000. |
| Scalamovil | 70.000. |
| Mizpirualdeko obrak | 9.146.000. |
| Osasun heziketa | 500.000. |
| Laguntza benefikoak | 16.150.000. |

## AUZOAK.
**62.216.610. % 3,3.**

| | |
|---|---|
| Langileen soldatak eta aseguroak | 9.160.000. |
| Azpiegituren konponketak eta mantenua | 3.005.000. |
| Bulegoko eta tresneri gastuak | 2.660.000. |
| Ibilgailuen konponketak eta erregaia | 275.000. |
| Mankomunitatea. Mendi Nekazaritza | 1.880.000 |
| Erramu Zapatua | 1.800.000. |
| Elosuko feria | 800.000. |
| Elosuko (Iturriberri) urbanizazioa | 500.000. |
| Baserri eta auzoetako bide berriak | 8.261.610. |
| Ur sarean lanak | 10.350.000. |
| Lur erosketak (San martzial, Elosu) | 5.800.000. |
| Elektrifikazio lanak | 6.000.000. |
| Hobi Septikoak | 1.725.000. |
| Beste lan batzuk | 10.000.000. |

# 1993ko Udal aurrekontuak

## KULTURA, JAIAK ETA HEZKUNTZA.
**176.386.332. % 9,3.**

| | |
|---|---|
| Langileen soldata eta aseguroak | 42.790.000. |
| Eraikuntzen alokairua eta mantenua | 4.400.000. |
| Kultur ekinzak | 8.000.000. |
| Kultur Etxearen gastuak | 2.730.000. |
| Liburutegiak (Errotalde, Angiozar, Osintxu) | 6.530.000. |
| Agiritegia | 880.000. |
| Ludoteka (Hirian eta Osintxun) | 12.830.000. |
| Bideogela | 1.515.000. |
| Museoa eta ondarea | 4.855.000. |
| Musika Banda eta Txistulari Banda | 8.585.000. |
| Hezkuntzako gastuak eta ekintzak | 4.895.000. |
| Ikastetxe publikoen gastuak | 1.775.000. |
| Ikastetxe pribatuen gastuak. | 1.625.000. |
| Jai batzordearen gastuak | 4.105.000. |
| Udazken Kulturala | 3.000.000. |
| Errege kabalgata | 500.000. |
| Eskaparate lehiaketa | 150.000. |
| Gabonetako argiak | 2.250.000. |
| Aratuzteak | 1.800.000. |
| Pentekoste jaiak | 9.000.000. |
| San Pedro eta San Martzial jaiak | 1.000.000. |
| San Martin jaiak | 3.000.000. |
| Bizar Zuri | 250.000. |
| Mankomunitatea. Irakasle Eskola. | 500.000. |
| Justo Garate Beka | 935.000. |
| Auzoetako jaiak | 2.255.000. |
| Tabladu berria | 3.519.000. |
| Ikerketa eta proiektuak | 3.500.000. |
| Dirulaguntza. UNED. | 9.000.000. |
| Dirulaguntza. Ikastetxe pribatuak. | 7.000.000. |
| Dirulaguntza. Haurtzaindegia | 1.500.000. |
| Dirulaguntza. EPA | 200.000. |
| Dirulaguntza. ASPACE. | 100.000. |
| Dirulaguntza. ARANSGI. | 100.000. |
| Dirulaguntza. Musika Eskola. | 12.000.000. |
| Dirulaguntza. Taun-Taun. | 500.000. |
| Dirulaguntza. Orfeoia. | 900.000. |
| Dirulaguntza. Aritzeta. | 900.000. |
| Dirulaguntza. Xamatz. | 500.000. |
| Dirulaguntza. Moises Azpiazu dantza eskola. | 105.000. |
| Dirulaguntza. Kobok. | 50.000. |
| Dirulaguntza. Monja Frantziskotarrak. | 150.000. |
| Dirulaguntza. Bergarako Kultur Ekintza. | 2.000.000. |
| Dirulaguntza. Ariz-Ondo. | 2.000.000. |
| Dirulaguntza. Sellu elkartea. | 115.000. |
| Dirulaguntza. Haurren Eguna. | 750.000. |
| Dirulaguntza. Simon Arrieta Zeramika Taldea. | 400.000. |
| Dirulaguntza. Pol-Pol Argazki Taldea. | 500.000. |
| Dirulaguntza. Aske. | 170.000. |
| Dirulaguntza. Kukuma. | 112.000. |
| Dirulaguntza. Surra Irratizaleak. | 160.000. |
| 1992ko gerakina. | 10.052.856. |

## EUSKARA BATZORDEA.
**54.214.074. % 2,8.**

| | |
|---|---|
| Langileen soldatak eta aseguroak | 11.995.000. |
| Bulegoko gastuak | 950.000. |
| Ekintzak | 8.070.000. |
| Hitzarmena | 1.010.000. |
| Udal Euskaltegiari transferentzia | 10.239.074. |
| Dirulaguntza. JARDUN. | 8.850.000. |
| Dirulaguntza. Bertso Eskola, Argia. | 140.000. |
| Udal Euskaltegiko obrak | 13.000.000. |



# 1993ko Udal aurrekontuak



## UDAL KIROL ZERBITZUA.
**108.105.000. % 5,7.**

| | |
|---|---|
| Funtzionari eta langileen sold.eta aseg. .... | 51.100.000. |
| Igerilekuetako gastuak | 17.852.000. |
| Polikiroldegiko gastuak | 4.000.000. |
| Zerbitzu orokorretako gastuak | 1.620.000. |
| Ekintzak | 4.420.000. |
| Zerbitzu prestaketak | 14.875.000. |
| Kirol taldeei ohizko ekintzengatik dirulag.k | 7.633.000. |
| Kirol taldeei ez-ohizko ekintzengatik dirulag. | 4.605.000 |
| Igerilekuetako obrak | 1.000.000. |
| Polikiroldegira gasa sartzea | 1.000.000. |
| 1992ko gerakina | 250.000. |

## HAZIENDA.
**269.025.000 % 14,2.**

| | |
|---|---|
| Funtzionari eta langileen sold. eta aseg. ... | 51.100.000. |
| Bulego gastuak | 1.810.000. |
| Auditorioak, inbentarioak | 3.195.000. |
| Gastu finantzieroak | 153.270.000. |
| Amortizazioak | 59.650.000. |
| 1992ko gerakina. | 3.437.436. |

## OBRAK, HIRIGINTZA ETA INGURUGIROA.
**582.935.772. % 30,9.**

| | |
|---|---|
| Funtzionario eta langileen sol. eta aseg. ... | 76.320.000. |
| Eraikuntzen alokairuak eta mantenua | 1.350.000. |
| Azpiegituren konponketak eta mantenua | 1.905.000. |
| Ibilgailuen konponketak | 980.000. |
| Bulegoko gastuak | 13.320.000. |
| Argindarra, gasa eta erregaiak | 521.000. |
| Isurketen kanona | 7.680.000. |
| SURADESA | 4.350.000. |
| Ur kontsorzioa | 1.640.000. |
| Dirulaguntzak (talde ekologistei 600.000) | 700.000. |
| Udaletxearen berriztapena | 346.835.805. |
| Aranerrekako udal biltegia | 33.300.567. |
| Babes ofizialeko etxeentzat lur erosketa | 23.000.000. |
| Ibaiondo eta Zubietako urbanizazioa | 10.000.000. |
| San Antonio-Martoko urbanizazioa | 14.500.000. |
| Zoladura lanak | 5.000.000. |
| Ur sarearen lanak | 3.000.000. |
| Arau Subsidiarioen erredakz. eta difusioa. | 2.311.400. |
| Ikerketa eta proiektuak | 7.000.000. |
| Babes ofizialeko etxeentzat argindarra | 6.110.000. |
| Industrialdearen kuota | 4.000.000. |
| Lorategiak | 4.000.000. |
| Urteaga kaleko espaloia eta barandila | 3.060.000. |
| Kasku historikoko fatxaden konponketak | 1.500.000. |
| Labegaraieta inguruko plan partziala | 2.000.000. |
| Hirigintz hedapenerako lur erosketak | 2.000.000. |
| Beste hainbat lan | 1.452.000. |
| Tresneria | 5.100.000. |
| 1992ko gerakina | 94.133.066. |

# IPINTZAKO NAGUSIENDAKO II. FUTBOL TXAPELKETA

## BETI ONA beteranoen mailako txapeldun, finalean (3-3) TXIPIRON taldeari penalti jaurtiketetan irabazi ondoren









Goian, finala jokatu zuten Beti-Ona eta Txipiron taldekoak. Behean, ezkerrean, Elias Mujika Beti Onaren izenean txapeldunaren saria jasotzen eta eskumako argazkian, berriz, Pablo Gallastegi txapelketako jokalari beteranoenaren saria jasotzen.

## FINALA GAUR

**MONGATXURRA AMILOTX**

Ostirala 19.30.

**Gaur, ostirala, jokatuko dute MONGATXURRA eta AMILOTX taldeek B mailako finala. Bestalde, atzo jokatutako partiduan, A ZE FLAXA taldeak hirugarren postua lortu zuen eta BILDURBAREK LAMek, berriz, laugarrena.**

## ASTEKO EMAITZAK

### FINAL LAURDENAK

| | |
|---|---|
| • BILDURBAREK LAM | 2 |
| • MONGATXURRA | 2 |
| • AMILOTX | 2 |
| • A ZE FLAXA | 1 |

### 3. eta 4. POSTUAK

| | |
|---|---|
| • BILDURBAREK LAM | 0 |
| • A ZE FLAXA | 1 |

TXUKUN
BEREZITASUNAK
Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62
BERGARA

ARRANO
Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

KAILASH
ZENTRO ESOTERIKOA
Parasikologi Zientzien Instituto Hispano Amerikarrean diplomatutako profesionalak
Tarota • Hipnosia • Erresonantzia
Tfnoa: 76 01 31 (Iris)



PIKAPIEDRAS



PAOK DE SAN JUAN



NAHIKARI

## KOMENTARIOA



**Pedro JAUSORO (Antolaketa Batzordekoa)**

"Final erdietako lehen partiduan, Bildurbarek LAMek Mongatxurraren aurka irabaztea merezi izan zuen. Arbitroak bi penalti pitatu zien eta bigarrena garbia izan arren, lehena ez dut uste penalti izan zenik. Ondoren izandako penalti jaurtiketetan zortea izan zuen A Ze Flaxak. Bigarren final erdia Amilotxek merezimendu osoz irabazi zion A Ze Flaxari, bigarren zatian gehiago dominatu eta defentsan oso talde ona dela erakutsiz. Finaleko partidua berdindua izaten bada, Amilotxek irabaziko du, haiek sekulako atezaina baitute eta oso beteranoak direlako. Txapelketako errebelazioa Paok de San Juan izan da, fisikoki maila ikaragarria erakutsi dute baina teknikoki igarri zaie eskubaloian jokatzen dutela".

## GOLEGILEAK



JOSU ARANA

**5 gol:**
- Josu Arana (Bildurbarek LAM).

**4 gol:**
- I. Etxeberria (Mongatxurra).
- Juan Luis Arriola (Arloteak).
- Mikel Azkarate (Amilotx).

**3 gol:**
- Manu Diaz (Mongatxurra).
- J.L. Etxaniz (Bildurbarek).
- R. Agirrezabal (Bildurbarek).
- I. Unzurrunzaga (A Ze Flaxa).
- Zangitu (Mongatxurra).
- Carlos Rodríguez (Amilotx).
- Paco Vallejos (A Ze Flaxa).

**2 gol:**
- Carlos Lasa (Bildurbarek LAM).
- Roberto Zurro (Amilotx).



# IPINTZAKO NAGUSIENDAKO II. FUTBOL TXAPELKETA

FS Foto Sistema
Albéniz

ARGAZKIAK ORDUBETEAN

✔ Diapositiba errebelatzeak.
✔ Karneterako argazkiak momentuan.
✔ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
✔ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50

# San Ferminetako entzierruak ikusten al dituzu?



**Maitane Arizabaleta**
**17 urte, ikaslea**

Ez, normalean ez. Batzutan bakarrik. Baina, goizean ez jaikitzearren...



**Pablo Pascual**
**58 urte, jubilatua**

Ahal dudanean. Betidanik izan dut afizioa; ni Cuellarkoa (Segovia) naiz eta bertan egiten dira entzierro zaharrenak.



**Jon Ander Egaña**
**26 urte, langilea**

Egun hauetan ikusi ditut. Gainera zortzietan izanda, ondo etortzen zait, politak izaten dira.



**Maria Angeles Milikua**
**58 urte, etxekoandra**

Gehienetan bai, iluntzetan. Beldurgarriak dira baina gustora ikusten ditut.

ETXE-AUNDI
Negozio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak
Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

IGARO
✔ Kosmetika eta oparigaiak
✔ Eder gela
✔ Bio Solariunma
Barrenkale 35, Tfnoa; 76 17 27

BOLINTXO
Okindegia
San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA
Ibarrekruz 4, EIBAR
☎ 79 63 42 ARRASATE

JOSEFINA
• Ezkongaiak orrazten eta ile-mozketa modernoak egiten espezialistak gara.
• Masajeak, solariuma, perikura, estetika...
Espaloia 4, ☎ 76 35 38

MARGA
MODA san pedro, 22

ADI BERGARA ETA BAILARAKOOK

Orain MARGA modaetxeak denda/biltegia zabaldu du Tokiederren (Mintegi kalean, Kutxaren gainean).
Egun-eguneko jantziak!!
eta... a ze prezioak!!
20 urte dituzun horrentzako zein gehitxoago dituzunarentzat.
Guztientzat du MARGA modaetxeak zerbait.
Eta gogoan hartu... a ze prezioak!!
HILAREN 12AN IREKIKO DUGU.
Ordutegia: 17.00-21.00.



ZATOZ DENDA BERRIRA!!!



## *Herriko pelotaren egoera*

Bergarako pelota egoera onean dago. Gaur egunean 35 pelotari ditugu gutxi gora behera, nahiz eta gustatuko litzaigukeen 50 bat izatea.

Pelotari hauek, badute herrian bertan nori begiratu eta norengandik ikasi, hor bait ditugu Etxaniz eta Zezeaga profesionaletan gorengo mailan. Ezin ahaztu Aitor Oregiren lan ona ere.

Senior mailan, Deba Arroko txapela lortu dugu eta kadete mailan Gipuzkoan bigarren geratu ondoren, "Liga Vasco-Navarra-Riojana" irabazi dugu. Txikienak ere Deba Arroko txapelketan punta-puntan ibili dira, batzuk txapeldun gertatu direlarik.

Bukatzeko, ezin ahaztu Iker Muruamendiarazek txapela lortu duela Elgetako lau t´erdiko finalean, bergarar guztion zorionerako. Etorkizun haundiko mutila dirudi honek. Hala ere orain arte bezala apal eta serio lana egiten jarraitu behar du datorren urtean gazte mailan ere punta-puntan ibiltzeko, horrela gure gaztetxoek beren exenplu eta ispilu bezala har dezaten.

**Reyes Azkoitia**



## *ONUrentzat ez dira denak berdinak*

Segurtasun Kontseiluaren erabakiak ez betetzeagatik Golkoko gerran Iraken aurka indarra erabiltzea legitimatu zuen ONUk. Israelek behin eta berriz egin die entzungor Segurtasun Kontseiluaren erabakiei baina ONUri ez zaio nazioarteko armadarik gogoratu. Gauzei neurgailu desberdinak ezartze horrek indarrean jarraitzen du oraindik eta horren azkenengo froga nazioarteko komunitateak kasko urdinen bidez Somalian eta Bosnian izan duen jokabide guztiz desberdina dugu.

Afrikako puntan tribuetako klanek beren armada partikularrekin egiten dituzten ankerkeriei indarrez erantzuten diete kasko urdinek, edo bai behintzat pakistandar eta estatu batuarrek. Bosnian, giza eskubideen aurkako eraso berdin-berdinei nazioartearen kondenaz erantzuten zaie. Indarra erabiltzeko arrazoi berdin-berdinak daude Bosniarako zein Somaliarako baina badirudi Europa zaharrak ez diola ONUri erantzun bera ematen uzten. Serbiarrek lagun indartsuak dituzte oraindik nazioartean eta horren eragina ageri-agerian dago.

Europarrek ikusle papera hartu dute Bosnian estatu baten desegituratzea nola ematen den berta-bertatik ikusi nahiz. Izan ere, esperientzia hori ezin baita laborategian probatu eta hala aukera ematen baitie azkenetan diren beste estatu haundiago batzurekin zer gerta litekeen jakiteko.

**Juan Antonio Migura**

*Biltoki*

**BETI ZURE ZERBITZURA!**

xey
SUKALDE ETA BAINURAKO ALTZARIAK.
DISEINU ETA KALITATE HAUNDIKOAK.
5 URTEKO GARANTIA.
**SAN PEDRO PLAZA Z/G**
**☎ 76 34 00**

PHILIPS
TEKNOLOGIA ETA DISEINUA.
TB, TURBO DRIVE-DUN BIDEOAK, HI-FI MATCH-LINE EKIPOAK, 100 HERTZIOTAKO DIGITAL SCAM TB-K
**BARRENKALE, 6**
**☎ 76 25 96**

dekorazioa
GAZTE ESTILOKO ALTZARIAK, ALFOMBRAK, LARRUZKO SOFAK, DEKORAZIORAKO OSAGARRIAK
**SAN MARTIN PLAZA, 2**
**☎ 76 43 51**

Beheko Taberna
*Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.*
ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

TABERNA ZAHARRA
*Jatetxea*
Bazkariak eta afariak
Tfnoa 76 21 21
ANGIOZAR

BIZKOTXOAK ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro 9-Teléfono 761051
R S I 209374 SS
BERGARA



## ❑ 800 kilometro inguru oinez

**Xabier Lijo** eta **Iker Etxeberria** Pol-Pol Mendizale taldeko 26 eta 20 urteko kideak "oporretara" joango zaizkigu astelehenean. Hala ere, ez dituzte oporrak deskantsatzeko aprobetxatuko, ezta gutxiago ere, 35 bat egunetan Donostia eta Cabo Creus (Girona) arteko **Transpirenaika Trabesia** (700-800 km. inguru) oinez eta inolako laguntzarik gabe betetzeko asmoa baitute. Azkenean, lesio bategatik, Jon Berasategik ez du beraiekin irtetzerik izan eta faltan botako dute. Xabierrek eta Ikerrek esan digutenez gastu psikolojikoa fisikoaren bestekoa baita. Aupa mutilak!!



## ❑ Arau subsidiarioak ikusgai

Irailaren 30era arte ikusgai izango dira **Irizar Etxeko** atarian **arau subsidiarioen** bideoa eta planoak. Iturbideo enpresak eginiko 20 bat minutuko bideoan eta plano horietan etorkizunean herriak zein itxura izango duen jasotzen da; benetan aldaketa ikusgarriak antzeman daitezke...

ARIZNOA
Taberna
• Gosariak •
• Pintxo bero eta hotzak •
Irala 1, BERGARA ☎ 76 52 30

BERGARESA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
*Sukalde eta bainu enzimerak*
Uriarte 8, ☎ 76 11 99 / 76 14 47
Faxa: 76 04 77 BERGARA

IGARZA
MERZERIA
LENZERIA
D. IRALA 5
Tlfnoa: 76 24 88 BERGARA

## Kubarekin elkartasuna

Bergarako Komite Internazionalistak Kubarekin solidaritate kanpaina bati ekin diote. Kanpaina honen helburua, irlak, enbarguaren eraginez, jasaten duen egoera larria ahal den neurrian hobetzea litzateke eta beharrezkoak dituzten medikamentuak (kadukatutakoak eta hipertensoreak ezik) eta eskolako materiala bildu nahi da. Interesatuek Pol-Pol, Aldoka Maldoka, Aralar edota Zuhaizti tabernetara jo dezakete laguntza emateko eta, era berean, Euskadiko Kutxan-Lankide Aurrezkian kontu korronte bat ireki da laguntza ekonomikoa emateko prest daudenentzat.






## ❑ Ezkontza bidaia

**Ane Goiti** eta **Juan Etxabarri** bergararrek **Thailandia**ra egin zuten beren ezkontza bidaia. Pasa den ekainaren 12an ezkondu eta Asia aukeratu zuten oporrak aurreratu eta elkarrekin egun ahaztezin batzuk igarotzeko, Singapur, Bali edota Chin Mai bezalako toki liluragarriak ezagutuz. Argazkian Bangkokeko ur-gaineko merkatuan agertzen dira; itxura denez, beste irakurketarik ezean, Berrigara ez zuten ahaztu.

## Zertan dihardute ba?

### JOSE ANJEL MIKEO



JARDUN Elkarteko presidente eta Mariaren Lagundiko 34 urteko irakasle angiozartar hau Nicaraguara joan zaigu, udan bertako haurrei klaseak emateko asmoz.

### JOSE ANTONIO LUQUE



Azken 7 urteak Novedades aretoko proiekzionista bezala eman ondoren, 29 urteko bergarar hau dugu Plazako periodiku eta errebista saltzaile berria.

BERGARA BOLTSAK

✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.
✓ Denetariko konfekzio industriala
✓ Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaitz 1, Tfnoa: 76 57 69 Faxa: (943) 76 55 66 BERGARA

# Umore giroan

### Supositorixua

Plaentxia inguruetan gertau zan ziur asko. Gizon zartxo bati agindu detsa medikuak supositorixua artzeko. Arek, baiña, etzekian zer zanik be.

- Ori, zer da? Aspirinia moduan artzekua?

- Ez, -diñotsa errainak- ori atzetik sartzen da. Baiñan zu ez estutu. Neuk ipiñiko deutsut.

Ipiñi zeban aitxitxa ertzera begira ta, bai sartu be supositorixua!.

Erraiña kuartotik urtetzera zoiala, esaten detsa gizon zartxo arek:

- Maitxu, bixar goizian etorri ataratzera.

### Pleuresia jaukek ala?

Eibarko fabrika baten, ufal aundixak izan ziranian, urak sartu eta makiña batzuek ondatu ziran.

Onetan etorri da plaentxiar bat fabrikara.

- Zer darabizue?

- Ementxe, mutil, urak, ateratzen makiñei.

Plaentxiarrak orduan:

- Zer ba? Pleuresia jaukek ala?

*Pedro Zelaia*

# ORAIN DELA 20-25 URTEKO NOTIZIAK



Beti-Onak orain dela 20 urte, aurten bezala, adin mugarik gabeko futbol txapelketa irabazi zuen.

### BETI-ONA TXAPELDUN

Gol bakar baten aldearekin lortu du Beti-Ona taldeak adin mugarik gabeko herri mailako txapelketa irabaztea. Gola Eginok lortu zuen 7 minutu baino falta ez zirenean.

Golegilerik onena Arazkoenaga izan da 12 golekin eta golik gutxien jaso duen atezaina Otaño, 5 gol baino ez dizkiote egin eta.

**La Voz de España. 1973, uztailak 21. Bikuña.**

### UDAL ZERBITZUEN FUNTZIONAMENDUA

Bergarari buruz SIADEDOk egin duen azkenengo azterketa sozio-ekonomikoan udaleko ur, argi eta zabor-bilketa zerbitzuari buruzko galdesorta bat pasa zaie herritarrei. Hona hemen jasotako erantzunen berri.

Ur zerbitzua: herritarren %93a pozik dago zerbitzuarekin eta %6ak uste du eskasak direla. Argia: %97a pozik dago eta %3a ez. Zabor-bilketa: %94a pozik dago. %4aren ustez eskasa da eta %2ak ez du erantzun. Ikus daitekeenez, herritarrak oso gustora daude Udalak ematen dizkien zerbitzuekin.

**La Voz de España. 1973, uztailak 27. Bikuña.**

Asier Madinabeitia, Josune Iñarra eta Ane Goenagak hemerotekatik bildutako notiziak

**BELENGUA**
**Taberna**
**Pintxoak, kafeak...**
Ozaeta 12 ☎ 76 20 24

**HARATEGIA - URDAITEGIA**
**Sebastian Imaz**
**Bildotsa, txahala eta oilazkoak**
Harane Erreka, 1
76 32 67 BERGARA

IRAKASLE ESKOLA
Eskoriatza
Gipuzkoa

**Magisterio Eskola honek zera jakinerazten du:**

**1993-94 ikasturterako aurreinskripzio-epea zabalik dagoela.**

**ESPEZIALITATEAK:**
- **Haur-Eskola**
- **Euskal Filologia**
- **Ingles Filologia**

**INFORMAZIOA:**
**Irakasle Eskola**
**☎ 943 / 71 41 57**

# BONOFOTOA



M. A. Elkoroberezibar




## AGUSTIN IÑARRA

**AGUSTIN IÑARRA**k irabazi du aste honetan BONOFOTOko saria. Aurreko BONOFOTOko argazkian agertzen zen iturritik gora segituz, aurkitzen dugun lehen ermita San Kristobal dugu. ZORIONAK **AGUSTIN**i (Argazkian, bere emaztearekin eta San Pedroko dendarien ordezkariarekin) erantzun zuzena jartzearren.

***Zein auzo da hau eta zein da bertako elizaren izena?***

Izena: ________ Abizena: ________ Tfnoa: ________

*Saria: San Pedroko dendariek emandako saria.*

Moztu paper hau eta ekarri astebete baino lehen:

*BERRIGARA*
*Errotalde Jauregia Bergara*

# SAN PEDROKO DENDARIAK

**BISITA EZAZU**
**SAN PEDRO KALEA**



**NAHI DUZUN GUZTIA**
**AURKITUKO DUZU**

**URRUTIRA JOAN GABE**

**HERRIAN BERTAN**

- BILTOKI
- BATZOKIA
- MOZOS FARMAZIA
- ORRAZKI ILEAPAINDEGIA
- GISASOLA BURDINAKI DENDA
- SIASKA
- GARNISH
- ZAPATODOS
- RETEGI OINETAKO DENDA
- LA BERMEANA ARRAINDEGIA
- MARGA MODA
- RADIO BERGARA
- IZARRA ILEAPAINDEGIA
- EROSKI MAZORRIAGA
- OGIZUN OKINDEGIA
- GALLASTEGI JOSTUNDEGIA
- LARRAÑAGA GOZOTEGIA
- IRUDI BITXITEGIA
- SAN PEDRO FRUITA DENDA
- BIONA PENTSUAK

# Iker Muruamendiaraz: "Aurten oso gustora ibili naiz eta emaitzak ere heldu dira"

**Iker Muruamendiaraz 15 urteko bergarar pelotariak 18 eta 13 irabazi zion Zearra galdakaotarrari Elgetako 4 t'erdiko pelota txapelketako kadete finalean.**


Iker Muruamendiaraz Elgetan eskuratutako trofeo eta txapelarekin.

**- Iker, bi faborito nagusiak kanporatu dituzu final aurrekoan eta finalean.**

- Bai, Berasaluze IV.ak komentatzen zuen ea Larraia eta Zearrak zelan parte hartzen zuten, txapelaren bila bakarrik ote zihoazten edo. Larraiak errez jokatzen du eta Zearrak, berriz, askoz gehiago jotzen du baina 4 t'erdian distantziak ere zeresanik badu eta hori nere alde neukan. Entrenamendutan asko lagundu didate eta irabaztea tokatu zen...

**- Norbaiti dedikatu nahi zenioke txapela?**

- Ba txapela aitxitxari eman diot. Beti nere gainean ikusten nuen, Elgetako partidu guztietan eta uste dut merezita zeukala. Gero, orokorrean, lagundu didaten guztiei: pelotariak, gurasoak, lagunak eta entrenadorea.

**- Irabazi duzun txapelketarik inportanteena?**

- Bai, baina aurten Gutierrezekin irabazitako Euskadiko Txapelketa eta Gipuzkoako azpitxapeldunak izatea ere garrantzitsuak izan dira. Euskadikoan ere ez ginen faboritoak eta geuk ere ez genuen espero baina... Bietan sorpresa izan da irabaztea. Datorren urtean? Ikusi egin behar: 16 urtekin zaila izango da 23koei aurre egitea baina ahal dana egingo dut.

**- Banaka ala bikoteka gustorago?**

- Banaka zeuk bakarrik jolasten duzu eta binaka gaizki jokatzearen errua beti besteari botatzen diozu eta aldrebes. Gogorragoa da banaka baina binaka lagun ona daukat eta horrela ere gustora jokatzen dut.

**- Herri arteko txapelketa Antzuolarekin jokatu duzu...**

- Neri berdin zait norekin jokatu, ekipo onena dagoen tokian jokatzearekin konforme. Ni bizi Antzuolan bizi naiz baina pelotan Bergaran ikasi dut.

**- Zure denboraldirik onena?**

- Aurten oso gustora ibili naiz eta emaitza onak ere lortu ditut. Joan zen urtean beherakada nabaritu nuen, gelditu egin nintzen, entrenadore barik ibiltzen ginen eta. Reyesek hartu gintuenetik uste dut pelotari guztiok gora egin dugula. Entendidu egiten du, jendeak pentsatzen du andra dalako ez duela ezer egingo baina asko laguntzen gaitu.

**- Eta profesionaletara heltzeko asmorik? Zer behar da?**

- Badago argitxo bat buruan, badaukat ilusiñua baina oraindik lan asko egin behar da: indar gehiago, aurrean jokua (boleak eta gantxuak) landu... Bagoaz pixkanaka pixkanaka eta ailegatzen bada ondo.

**- Eta bergararrak zelan ikusten dituzu?**

- Zezeaga eta Jokin punta-puntan daude, Aitor Oregi ere oso ondo dabil eta Joseba pasatu egingo ote den komentatzen da. Jokinek asko lagundu didala ere esan beharra daukat. Elgetan asko erakutsi dit.

MAKAILO ETXEA
Makailau kazuelak gertatzen ditugu
Ibargarai 15


Ziripot
Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

HARATEGIA
ANTIA
URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09



## *Arantzazura peregrinazioa. 1935 eta 1955.*



Udal agintari eta guzti hirurehun laguneraino joaten ziren garai batean kamioietan Bergaratik Arantzazura peregrinazioan. Eta esan beharra dago oraindik ere ez dela hori galdu: lehen fraileen Hirugarren ordenakoek antolatzen zutena orain San Pedro eta Santa Marinako parrokiek antolatzen dute. Lehen abuztuan izaten zen, orain uztailaren laugarren domekan. Garaiz zaudete, beraz, joan nahi duzuenak.

**Goiko argazkia**, 1955ekoa, Martin Beainek utzi digu eta asko direnez, ez dugu bertako izenik emango.

**Albokoan**, berriz, (1935ekoa da) ondorengo hauek agertzen dira atzeko ilaratik hasita (ezkerretik eskumara):

**Lehen ilaran:** Elena Loidi, Soledad Jauregi eta Miren Azkargorta.

**Bigarren ilaran:** Itziar Mugika, Caridad Zabala, Elisabeth Agirrezabal eta Inazia Etxaniz.

**Hirugarren ilaran:** Julia Narbaiza, Maria Arregi, Maria Teresa Arregi, Maria Teresa Berraondo eta Elisabete Argarate.

***Estepan Plazaola***




PINTURAS BERGARA, S.L. PB

Arane Erreka, 32 behea. Tfnoa eta Faxa: 76 11 40
BERGARA

• INDUSTRIARAKO PINTURAK
• APAINKETARAKO PINTURAK
• GARBIKETAK
• ERROTULOAK
• Etab...

## ETXEBIZITZA

**Garajea** hartuko nuke alokairuan **Toki Ederren** edota **Espoloian** ☎ 76 52 45.

**Jacan** udarako **apartamentua** alokatzen da. ☎ 76 43 98.

**Garajea salgai** Ozaetan ☎ 76 56 94.

**Pisua salgai** San Lorentzo 1ean. ☎ 76 27 35.

**Garajea salgai** Bolun **(1.200.000)** ☎ 76 25 38

**Etxea hartuko genuke alokairuan.** ☎ 21 34 60.

## DENETARIK

**Paseorako bizikleta** (bolero) **salgai**. Oso egoera onean. ☎ 76 49 56.

**SEAT ibiza** bat **salgai.** 3 urte, 34.000 km. ☎ 76 35 14.

**ZEUS** errepideko **bizikleta** salgai. 56 neurrikoa, pintatu berria. Gurbil berriak. 69.500 pzta.. ☎ 76 11 21.

**Nintendo** bat salgai (S. Mario Bros) ☎ 76 39 34.

**Master System II** kontsola salgai. ☎ 76 03 31.

**Citroen AX SS-AH salgai.** Berritua. ☎ 78 33 09.

Kaminoko **bizikleta** bat **erosiko** nuke. ☎ 76 18 78.

**SUZUKI DR-BIG 74 cc salgai.** ☎ 76 50 67.

Pastor-aleman **txakurkumak salgai.** ☎ 76 55 29.

**Urrezko eraztuna** galdu dut Masterreka-Matxiategi inguruan. ☎ 76 49 42.

**Kanpin denda** haundia **salgai**. 45.000 pzta. ☎ 76 26 73.

**Kitarra klaseak** hartuko nituzke. ☎ 76 45 16.

**Trialeko motorra salgai.** Merlin 350 zk. ☎ 76 07 04.

**Nintendo bat salgai.** 6.000 pta. Bi mando. ☎ 76 58 93 (Unai).

**Ume kotxe** bat salgai. ☎ 76 02 00.

MOBYLETTE CADY **motor bat salgai.** ☎ 76 54 73 (lan orduetan).

**Motorrean** ibiltzeko **kasko integrala** erosiko nuke. ☎ 76 10 04.

Bigarren eskuko **bizikleta estatiko** bat erosiko nuke ☎ 76 50 58.

Transformatutako **Vanette furgoneta salgai.** Ohe, sukalde, izozkalilu, mahai, iturri eta guzti. ☎ 79 28 81.

TV GAME 2.600 **bideo kontsola salgai**: 224 joku eta mando eta guzti. 4.500 pzta. ☎ 76 54 12 / 76 13 14.

**3 berogailu salgai:** keroseno, butanozkoa eta elektrikoa. ☎ 78 05 72.

**OPEL CORSA City, BI-AK salgai.** ☎ 92-6201918 (Gorka). Lan orduetan.

**Doberman** arrazako **txakur emea salgai. 40.000** pzta. ☎ 76 57 67.

**Ilea eta bizarra** moztera joango nintzateke etxez etxe (Jacin). ☎ 76 41 98.

**Renault Super 5** kotxea salgai. BI-AL matrikula. ☎ 76 52 90.

## LANA

**Umeak zaindu** eta **etxeko lanak** egingo nituzke. ☎ 76 03 72.

**OHO**ko klaseak ematen ditut. ☎ 76 19 59.

Bi lagunek **propaganda** etxez-etxe **banatuko** lukete. ☎ 76 39 86 (Iban).

**Etxeak garbitu** edota pertsonak zaindulo nituzke. ☎ 76 50 63 (Marijo).

Emakumezko batek **haurrak zaindu** eta **etxeko lanak** egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

**Euskarazko klaseak** ematen ditut. Maila guztiak. ☎ 70 12 71.

**Ingelesezko klaseak** ematen ditut. ☎ 76 26 63.

**OHO** eta **BBB**ko **klase partikularrak** ematen ditut. ☎ 76 42 08 (Nerea).

**Ingelesezko klaseak** ematen ditut. ☎ 76 31 36.

## Hildakoak

*Tomasa Mujika Alejalde,* uztailak 5, 93 urte
*Eneko Zabaleta Moreno,* uzt. 6, 59 urte
*Isidora Asenjo Magdaleno,* uzt. 7, 84 urte
*Carmen Sillero Martinez,* uzt. 9, 91 urte
Maria Luisa Zabala Larrañaga, uzt. 10, 82 urte
*Anunciación Beldarrain Etxabe,* 12, 66 urte
*Maria Peña Cañas,* uzt. 15, 82 urte
*Iñaki Sotil Zabala,* uzt. 15, 64 urte

## Jaiotakoak

*Jon Ander Roman Moreno*
uztailak 7
*Eneko Zabaleta Moreno*
uztailak 8

**AUTOPULLMANS ARABA**
Autobusak
**Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara**
ANGIOZAR ☎ 76 55 70


SAN JUAN BERGARA

# HALTZARI

**FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA**

Bolu, 24 behea
Tfnoa eta faxa: (943) 76 30 57

BERGARA
(Gipuzkoa)



FAGOR

SUKALDERAKO ALTZARIAK

AENOR
Produktu Zertifikatua

6 URTEKO GARANTIA

# MOTA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK




**Koldo Eleizalde, 8 BERGARA** ☎ 76 00 00